

# BESTELAKO XEDAPENAK

ELANKIDETZA-LANKIDETZARAKO ETA ELKARTASUNERAKO EUSKAL AGENTZIA

4452

*EBAZPENA, 2024ko irailaren 13koa, eLankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako zuzendariarena, zeinaren bidez iragartzen baita garapenerako lankidetza-programen identifikazio-faserako laguntzen deialdia, 2024rako.*

Azaroaren 28ko 180/2023 Dekretuak arautzen ditu Garapenerako lankidetza-programetarako laguntzak (2024ko urtarrilaren 12ko EHAA, 9. zk.).

eLankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako zuzendariaren 2024ko apirilaren 12ko Ebazpenaren bidez iragartzen da garapenerako lankidetza-programen identifikazio-faserako laguntzen deialdia, 2024rako (maiatzaren 10eko EHAA, 91. zk.).

Ikusirik deialdi-ebazpenaren 15. artikuluan bidez hartarako izendatutako balorazio-batzordeak laguntzak emateko egindako proposamena, eta eLankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren Koordinazio Zerbitzu Teknikoak laguntza-eskabideen balorazioa eta azterketa teknikoa eginik, honako hau

## EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honen I. eranskinean jasotako entitateei ematea eLankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako zuzendariaren 2024ko apirilaren 12ko Ebazpenaren bidez deitutako laguntzak (Ebazpena, 2024ko apirilaren 12koa, zeinaren bidez iragartzen baita garapenerako lankidetza-programen identifikazio-faserako laguntzen deialdia, 2024rako), eranskin horretan aipatutako zenbatekoan eta eran.

Bigarrena.– II. eranskinean ageri diren entitateei laguntza-eskaerak baztertzea, eranskinean bertan ematen diren arrazoiengatik.

Hirugarrena.– Laguntza-eskabideetan atzera egin izana onartzea III. eranskinean ageri dien entitateei.

Laugarrena.– IV. eranskinean ageri diren entitateen laguntza-eskabideak baztertzea, eranskinean bertan ematen diren arrazoiengatik.

Bosgarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, herritar oro jakinaren gainean egon dadin.

Seigarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio eLankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Gora jotzeko errekurtsua aurkeztu eta hiru hilabete igaro ondoren ebazpenik eman ez bada, ezetsizat jo ahal izango da errekurtsua, eta zabalik geratuko da administrazioarekiko auzien bidea.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko irailaren 13a.

eLankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako zuzendaria,  
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.

2024ko irailaren 26a, osteguna

## I. ERANSKINA

## DIRUZ LAGUNDUTAKO ESKABIDEAK

Espedientea	Entitate eskatzailea	Izenburua	Herrialdea	Puntuak	Dirulaguntza (euro)
PGM-2024ID/0002	Oxfam Intermón Fundazioa	Zaintzen duten hiri eta komunitateak: genero-berdintasunerako eta bizitzaren jasangarritasunerako estrategiak	Bolivia, Euskadi	75.	30.0000,00
PGM-2024ID/0006	Mugarik Gabe, Garapenerako Lankidetzako Gobernu Kanpoko Erakundea	Giza eskubideak eta justizia soziala babestea, trantsizio ekologikoak dakarren desafioaren aurrean	Guatemala, Euskadi	65.	29.925,34
PGM-2024ID/0012	Calala Fondo de Mujeres Fundazioa	Mugimendu feministak elkarrekin eta indartsu aritzea, gorroto-diskurtsoen kontra mugaz gaindiko aliantzak ehuntzeko Erdialdeko Amerikan eta Euskadin	El Salvador, Euskadi	65.	30.000,00
PGM-2024ID/0015	Bizilur – Herrien Lankidetzaren eta Garapenerako Elkartea	Europako/Latinoamerikako sektore sozialen aliantza indartzea, nekazariek agroindustria korporatiboaren mehatxuen aurrean dituzten eskubideak babestu eta tokiko elikagai-sistemak berreraikitzeke	Brasil, Kolonbia, Txile, Euskadi	65.	29.940,27
PGM-2024ID/0001	Mundubat Fundazioa	Afrika Mendebaldeko emakumeen bake-agenda sustatzea	Mali, Saharako Errepublikak Arabiar Demokratikoa, Senegal, Mauritania, Euskadi	55.	29.980,59

2024ko irailaren 26a, osteguna

## II. ERANSKINA

## FUNTSAK AGORTU DIRENEZ UKATU DIREN ESKABIDEAK

Espedientea	Entitate eskatzailea	Izenburua	Herrialdea	Puntuak
PGM-2024ID/0011	Nazioarteko Elkartasuna	Euskadin, Guatemalan, Nikaraguan eta Kolonbian demokrazia inklusiboa indartzea	Guatemala, Nikaragua, Kolonbia, Euskadi	60
PGM-2024ID/0010	Mugen Gaietik	Protagonistak eta istorioak: emakumeen eta LGTBQ+ pertsonen oroitzapenak, aktibismoak, erresistentziak eta lurralde-gorputzen aldeko borrokak	El Salvador, Kolonbia, Argentina, Guatemala, Txile, Euskadi	55
PGM-2024ID/0008	Alboan Fundazioa	Ongizaterantz abiatzeko aukera ekonomikoak	Kolonbia, El Salvador, Guatemala, Peru, Bolivia, Kuba, Ekuador, Mexiko, Euskadi	50

2024ko irailaren 26a, osteguna

## III. ERANSKINA

## ESKATZAILEEK ATZERA EGIN DUTE ESKABIDEAN

Espedientea	Entitate eskatzailea	Izenburua	Herrialdea
PGM-2024ID/0005	Calala Fondo de Mujeres Fundazioa	Feministak elkarrekin eta indartsu aritzea, gorroto-diskurtsoen kontra mugaz gaindiko aliantzak ehuntzeko Erdialdeko Amerikan eta Euskadin	El Salvador, Euskadi

2024ko irailaren 26a, osteguna

## IV. ERANSKINA

## BAZTERTUTAKO ESKABIDEAK

Espedientea	Entitate eskatzailea	Izenburua	Herrialdea	Baztertzeko arrazoia
PGM-2024ID/0003	Euskadiko Bakea eta Elkartasuna Fundazioa	Abya Yalan eta Euskadin askotariko subjektu soziopolitikoak indartzea, krisi zibilizatzailearen testuinguruan	Guatemala, El Salvador, Euskadi	50 puntu baino gutxiago edukitzea (180/2023 Dekretua, azaroaren 28koa, garapenerako lankidetzaprogrametarako laguntzak arautzen dituena, 19.1 artikulua, «planteatutako identifikazio-prozesuaren» irizpidea ez baita baloratu, dekretu horren 18.1.c artikuluan ezarritakoarekin bat)
PGM-2024ID/0004	Lankidetzeta eta Garapenerako Zabalaketa Elkartea	Emakume landatarrak tokian tokian eta munduan ekiten	Peru, Euskadi	50 puntu baino gutxiago edukitzea (180/2023 Dekretua, azaroaren 28koa, garapenerako lankidetzaprogrametarako laguntzak arautzen dituena, 19.1 artikulua, «planteatutako identifikazio-prozesuaren» irizpidea ez baita baloratu, dekretu horren 18.1.c artikuluan ezarritakoarekin bat)
PGM-2024ID/0007	Laboratorio de Ideas Cooperativas Elkartea (LABIDCOOP)	EDAD.TECH: Baztertutako adinekoak arlo digitalean alfabetatzea Villa 21 kohortea / «Cándida» eguneko zentroa	Argentina, Euskadi	Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren aurretiko dirulaguntzarik ez edukitzea (180/2023 Dekretua, azaroaren 28koa, garapenerako lankidetzaprogrametarako laguntzak arautzen dituena, 5.1.2.a artikulua)
PGM-2024ID/0009	Unicef Fundazioa – Espainiako Batzordea	Nerabeek eta gazteek Afrika Erdiko Errepublikan eta Euskadin parte hartzea, bakea eraikitzeko eta haurren kontrako indarkeria prebenitzeko	Afrika Erdiko Errepublika, Euskadi	50 puntu baino gutxiago edukitzea (180/2023 Dekretua, azaroaren 28koa, garapenerako lankidetzaprogrametarako laguntzak arautzen dituena, 19.1 artikulua)
PGM-2024ID/0013	Bakerako Lankidetzeta Batzarra	Neskato, nerabe, gazte, emakume eta LGBTIQ+ pertsonen sexu- eta ugalketa-eskubideen gobernantza eta babesa sustatzea El Salvadorren eta Euskadin	El Salvador, Euskadi	50 puntu baino gutxiago edukitzea (180/2023 Dekretua, azaroaren 28koa, garapenerako lankidetzaprogrametarako laguntzak arautzen dituena, 19.1 artikulua, «planteatutako identifikazio-prozesuaren» irizpidea ez baita baloratu, dekretu horren 18.1.c artikuluan ezarritakoarekin bat)
PGM-2024ID/0014	Lagun Artean	Alternatiba feministak eraikitzea Guatemalako eta Euskal Herriko askotariko borroketatik, eskema hegemoniko heteropatriarkalak hausteko	Guatemala, Euskadi	50 puntu baino gutxiago edukitzea (180/2023 Dekretua, azaroaren 28koa, garapenerako lankidetzaprogrametarako laguntzak arautzen dituena, 19.1 artikulua, «planteatutako identifikazio-prozesuaren» irizpidea ez baita baloratu, dekretu horren 18.1.c artikuluan ezarritakoarekin bat)